



**2025 UDAKO KANPAINAN MUTRIKUKO SATURRARAN HONDARTZAN FOOD
TRUCK POSTUAK ESLEITZEKO OINARRIAK**

1. IZAERA

Oinarri hauen xedea, 2025. urteko udako kanpainan Saturrarango hondartzan Food Truck edo janari-furgoneten bidez salmenta ibiltariko baimenak esleitzeko deialdia kudeatzea da, udal mugartean salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzaren 6. artikuluan xedatutakoa aintzat hartzen delarik.

Food Truck bidezko salmenta izango da, aurretiaz baimendutako produktuen salmenta horretarako egokitutako ibilgailu baten bidez burutzen denean.

2. KUDEATZEKO MODUA

Mutrikuko Udaleko Idazkaritza eta Hirigintza Zerbitzuak zuzenean kudeatuko du Food Truck bidezko salmenta.

3. BAIMENAREN IRAUPENA, ORDUTEGIA ETA KOKALEKUA

Jarduera hasi aurretik beharrezkoa izango da lizentzia eskuratzea. Ematen diren baimen guztiak pertsonalak izango dira. Justifikatutako arrazoiak direla-eta, edo hala gomendatzen duten interes orokorreko arrazoiak daudenean, Mutrikuko Udalak baimena ezeztatze aukera izango du. Horrenbestez, beretzat gordetzen du Udalak baimena baliogabetzeko eskubidea.

- Epealdia: 2025/06/13tik 2025/09/15era (93 egun) izango da, I. eranskina: egutegia dokumentuan zehazten dena kontuan hartuta.
- Zerbitzua emateko gutxieneko ordutegia 11:00etatik 22:00etara izango da, baina baldintza meteorologikoak gorabehera, sorospen zerbitzuaren ordutegira murriz daiteke zerbitzua, hots, ekaina eta iraila 11:30etatik – 18:30etara eta, uztaila eta abuztua, berriz, 11:00etatik 19:00etara. Egoeraren bat dela eta, esleipendunak ordutegia luzatu nahiko balu, berriz, udal honi baimena eskatu beharko dio, 5 lan eguneko aurrerapenarekin.
- Kokalekua: aparkalekuko harrizko bankuen eta kantineko eraikin zaharraren artean, II. Eranskina: planoak dokumentuan zehazten den moduan. Hirigintza zerbitzuak zehaztuko du furgoneta mota bakoitzaren egoera zehatza.



Mutrikuko Udala

4. SALGAI DAUDEN PRODUKTUAK

Janari prestatuak eta edariak saldu ahalko dira.

Herriz herriko salmentarako udal baimenean edo lizentzian adierazitako produktuak bakarrik merkaturatu ahal izango dira, eta baimendutakoez bestelako produktuak saltzeko baimena lortu beharko da emakidaren aldian.

Elikagai-produktu guztien salmenta, ontziratzea eta gainontzeko ezaugarriak Araudi Tekniko-Sanitarioen menpe egongo dira.

5. LANPOSTUEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

- Ibilgailuetatik egingo da salmenta eta Udalaren aurretiazko baimena beharko da.
- Mutrikuko Udaleko Hirigintza Zerbitzuak adierazitako lekuetan ipiniko dira ibilgailuak. II. Eranskina: Planoa.
- Salgai jarritako produktuei aplikatu beharreko higieze eta osasun araudietan finkatutako baldintzak bete beharko dituzte ibilgailuek.
- Ibilgailuaren ezaugarriak ingurura egokitu beharko dira, estetikari eta funtzionaltasunari dagokienez; gainera, indarrean dauden higiezen eta instalazio elektrikoaren alorretan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.
- Mutrikuko Udalak ez du esleipenaren unean adierazitako neurriak betetzen ez dituen instalaziorik onartuko.
- Ezin izango da eskatutakoaz beste ibilgailurik instalatu, ez eta adierazitako jardueraz besterik burutu ere. Debekatuta dago aurretiaz baimendu gabeko ezein elementu instalatzea.
- Ezingo da ezer lurrera lotu, hau da, zoladuraren gainean ez da inolako ainguraketarik erabiliko eta behar bezala babestu beharko da hura.
- Ageriko lekuan jarri beharko da eskaintzen den menua, bai eta prezioen zerrenda ere, ele bitan eta euskarari lehentasuna emanaz.
- Halaber, ageriko lekuan adierazi beharko dute kontsumitzaileek erreklamazioak non aurkeztu ahal dituzten. Edonola ere, helbide hori fakturan edo ordainagirian adierazi beharko da.



Mutrikuko Udala

- Megafonia, musika erreproduzitzeko soilik erabili ahal izango da, eta inola ere, ezin izango da erabili publizitate-helburuetarako.
- Mutrikuko Udalak 60 m²-ko zurezko plataforma jarriko du terraza gisa erabiltzeko. Guztira 12 mahai eta 48 aulki jarri ahal izango dira. Mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, etab. Food Truckek eraman beharko dituzte.
- Gutxiengo zerbitzuak Mutrikuko Udalak jarriko ditu, besteak beste, argia eta ura. Argiari dagokionez, hornidura kableak babestuta egon beharko dira. Urari erreparatuz gero, berriz, hondakin-urak husteko, furgoneta bakoitzak bere andela izan beharko du. Erabat debekatuta dago hondakin-urak, Saturrarango eremu osoan edota Mijoa errekan isurtzea.
- Food Truck zerbitzua eskaintzearekin batera, Saturrarango komun irekieraz eta itxieraz arduratuko da baimenduna eta eskainitako zerbitzuaren ordutegiarekin bat etorriko da. Guztiz debekatuta egongo da inolako tarifarik kobratzea hiritarrei WC zerbitzuagatik. Era berean, eremua txukun garbitzeko ahalegina egin beharko du baimendunak.
- Hizkuntza politikari dagokionez, ahal den guztietan zerbitzua euskaraz ematea bermatuko da. Errotuluak, oharrak, prezio zerrendak eta gainerako komunikazio orokorrak ele bitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez. Euskarazko testuen kalitatea ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira.

6. SALMENTA IBILRIAREN BALDINTZAK

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea.
- Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea. Baldintza hau galdagarria izango da bereren kontu pertsonal langilearentzat. Langileen datuak berariaz adierazi beharko dira salmenta ibiltarirako lizentzia eskatzen denean. Nolanahi ere, ezingo dira bi titularkide baino gehiago izan lizentzia bakoitzeko, eta saltokiak esleitzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak oro bete beharko dituzte.
- Udal-baimena edukitzea.



Mutrikuko Udala

- Epeetan, ezartzen dituzten tasa edo kanonak ordaintzea.
- Hirugarren herrietako mailegatzailleek zera frogatu beharko dute: bizileku-baimenak eta lana kontuetan indarreko legerian ezarritako beharrak betetzen dituztela.
- Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Ofizioz egiaztatuko du Udalak hori horrela den, jasotako eskabideak baloratzekoan. Baztertu egingo da baloratzeko unean eskakizun hori betetzen ez duen eskabide oro.
- Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea eta ordainduta egotea.
- Higiene eta osasun edo beste izaera bateko arautze espezifikoek ezarritako baldintzak betetzea.
- Lizentziak norberak, eta ez beste inork, erabiltzeko izango dira, beraz, debekatua dago haiek eskualdatzea.

7. ESKABIDEA EGITEKO TOKIA, EPEA ETA PROZEDURA

Eskaerak 2025eko **maiatzaren 14tik 24ra bitartean aurkeztu beharko** dira, bide hauetako bat baliatuz:

- Mutrikuko Udaleko bulegoetan, Txurruka plaza z/g, 20830, Mutriku.
- Mutrikuko Udalari zuzendutako agirien sarrera-erregistroaren bidez.
<https://www.mutriku.eus/es/ayuntamiento/tramites/registro-on-line>
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera legez aurreikusitako gainerako moduetan.

Eskaera Udaleko bulegoetara, posta ziurtatuaren bidez bidaltzen denean (Txurruka plaza z/g, 20830, Mutriku), eskatzaileak posta bulegoan zein egunetan bidali duen justifikatu beharko du, eta Mutrikuko Udalari jakinarazi beharko dio posta elektronikoz (idadzkaritza2@mutriku.eus) eskaera burututako egun berean, betiere, eskaera aurkezteko azken eguna baino lehen izapidetu beharko da. Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta era frogagarrian identifikatu beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, eskabidea ezeztatu daiteke.



Mutrikuko Udala

Lanpostu eskaera aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea ekarriko du.

Nahiz eta lizentziak indarrean egon, eskaera berriak onartu ahal izango dira, eta horiek itxaron-zerrenda batean sartuko dira. Kasu honetan, itxarote-zerrendako ordena eskaera udal erregistroan sartu den eguna/ordua/minutua jarraituz zehaztuko da.

8. AURKEZTUTAKO ESKAEREN BALORAZIOA

Balioespena egiteko, aurkeztutako eskabideak oinarrian adierazitako balioespen-irizpideen bidez alderatuko dira.

Helburuetako bat askotariko eskaintza gastronomikoa inklusiboa eskaintzea izango da, aintzat hartuko direlarik, hainbat dieta-murrizketa dituzten pertsonen elikadura-beharrak. Hori dela eta, bi zerbitzu-mota eskaintzen dituzten furgonetetan sailkatuko dira eskariak:

- Lehenengo tipologia.- Edariak eskaintzen dituzten gastrofurgoak.
- Bigarren tipologia.- Hanburgesak, ogitartekoak eta antzeko eskaintzak eskaintzen dituzten gastrofurgoak.

Berdinketa gertatuz gero, zozketa egingo da.

Epez kanpo aurkeztutako eskariak, deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, itxaron zerrendaren amaiera pasatuko dira.

9. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenen hurrenkera zehazteko kontuan hartuko diren alderdiak:

- Lan-programa eta kudeaketa orokorra: Alderdi nagusiak lan-jarduerari dagokionez, eskainiko dituen ekintza kulturalak (gehienez 15 puntu).
- Eskainitako produktuen aurreikuspena. Menua, produktuen jatorria, hornitzaileak, etab. (gehienez 15 puntu).
- Baldintza estetikoak: instalazioaren originaltasuna eta diseinua (gehienez 10 puntu).
- Giza-baliabideak: erabiliko diren giza-baliabideak, organigrama, aurreikusten diren lanpostuak edo langile bakoitzari eskatutako kualifikazioa (hizkuntza-eskakizuna barne) (gehienez 10 puntu).



10. NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

- Janari-furgonetekin salmenta ibiltarian aritzeko eskabide orria, non Mutrikuko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko udalaren ordenantzak salmentarako ezarritako eta deialdi honek xedatzen dituzten betebeharrak betetzen direla adierazten baitu.
- Pertsona fisikoen kasuan:
 - Titularraren eta titularkidearen nortasun-agiriaren fotokopiak, edo Europar Batasunaz kanpoko kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenen fotokopiak.
 - Eskatzaileak ordezkari bidez jardunez gero, ordezkariaren NANaren edo horren baliokidea den agiriren baten kopia, bai eta ordezkatzeko-ahalmena egiaztatzen duen agiria ere.
- Pertsona juridikoen kasuan:
 - Eraketa eskrituraren fotokopia.
 - Eskatzailearen ordezkatzeko-ahalmena eta identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia.
- Osasun Baimena; halakorik ez izatera, janari-furgoneta homologatzen duen agiria.
- Zirkulazio-baimena eta IATaren kopia.
- Ibilgailuaren argazkiak.
- Memoria teknikoa, eskatzailearen izenean teknikari eskudunak egina eta izenpetua, non, gutxienez ere, informazio hau bildu beharko baita: jardueraren deskribapena eta argazkiak, muntaketako jarraibideak, mantenua, zaintza, ibilgailuaren neurriak (okupatutako azalera osoa, m²-tan) eta irisgarritasun-sistema.

11. ESKAERAK LEHENESTEKO DOKUMENTAZIOA

- Ibilgailua hobetzea irisgarritasunaren arloan Ibilgailuaren hobekuntzak, irisgarritasun alorrean.
- Dagozkien kalitate-ziurtagiriak.
- "0 km" produktuen hornitzaileen agiriak.
- Tresna konpostagarrien hornitzaileen ziurtagiriak



Mutrikuko Udala

- Jardueraren deskribapen-txostena, tartean ibilgailuaren baldintza estetikoak eta merkaturatuko diren produktuei buruzko informazio zehatza. Datuak falta badira edo argiak ez badira, 0 puntu lortu ahaliko dira balio-iritziaren mendeko irizpideetan.
- Titular eskatzaileak euskararen ezagutza duela egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri ofizial eguneratua. Ondorio horietarako, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatutako titulu eta ziurtagiri ofizialak bakarrik hartuko dira kontuan, 2010eko azaroaren 15eko EHAAn (219. zk.) argitaratutako azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan jasotakoaren arabera.

12. ESLEIPENDUNEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunen zerrenda posta elektronikoz bidaliko dira 2025ko **maiatzaren 26an aurkeztuko da**.

Esleipenduna izanez gero, 2025eko **maiatzaren 27tik 30era dokumentazioa aurkeztu beharko da Mutrikuko** Udalean. Hain zuzen ere, honako dokumentazioa:

- Titularraren argazki bat, nortasun agirikoaren tamainakoa.
- Tasa ordaindu izanaren frogagiria eta fidantza.
- Ekonomia Jardueren Gainera Zergaren alta, edo Ekonomia Jardueren Gainera Zergaren barruan dagokion epigrafean alta eta baje egiaztatzea
- Saltzaileek elikadura-higienearen arloan jasotako prestakuntza egiaztatzen duen agiria.
- Salmenta jardueraren ondorioz kalte-galerarik sortuko balitz ere, horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza bera.

Adjudikaziodun gertatu eta ezarritako epean dokumentazio guztia aurkeztu ez duten pertsonen eskabidea ezetsitatu joko dira.

Baimenak **2025eko ekainaren 3tik aurrera jaso beharko dira** Mutrikuko Udalean (08:30etik 14:00etara). Titularrak edo titularkideak jaso beharko dituzte baimenak, nortasun agiria aurkeztuta – Europar Batasunaz kanpoko kasuan, atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia-. Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso



Mutrikuko Udala

ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar Batasunaz kanpokoen kasuan) den fotokopia erakutsita.

13. TASAREN ORDAINKETA

Udal Ordenantza Fiskalean jaiegun gisa ezarritako tasa aplikatuko da:

4,73 € x gastrofurgo bakoitzak okupatutako azalera x 93 egun

Prezio publiko horiek Udal Ordenantza Fiskaletan eta gainerako araudi osagarrietan ezarritako arauen arabera likidatuko dira, eta Udalaren Zerga Bilketa Zerbitzuak kudeatuko ditu, dena den, ez dira itzuliko edozein arrazoi pertsonalengatik bertaratzen ez badira.

14. FIDANTZA

Baimena eskuratzen duten pertsonak 450 €-ko bermea jarri beharko dute, gerta daitekeen hainbat egoerari erantzuteko: bide publikoan kalterik egitea, garbitzeko betebeharra ez betetzea edo legez eska daitekeen beste edozein obligazio ez betetzea.

15. BAIMEN-LIZENTZIA

Esleipen bakoitzeko lizentzia bat eta bakarra emango da. Honako datuak jasoko dira baimenean: ibilgailuaren titularraren izen-abizenak eta argazkia, titularkideen (direla bazkide, direla soldatapeko) izen-abizenak eta argazkiak, saldu dezaketen lekuak, baimendutako produktuak eta esleipenaren indarraldia. Horrez gain, balizko erreklamazioak bideratzeko eskatzaileek eman duten helbidea ere gehitu ahal izango da.

16. ELIKAGAIEN SEGURTASUN ETA HIGIENE ETA KONTSUMO BALDINTZAK

Berariazko baldintzak:

- Ibilgailuek behar diren osasun baimenak izan beharko dituzte.
- Arduradunaren identifikazioa eta helbidea ikusgai egongo beharko dira.
- Ibilgailuek edukiera nahikoa izan beharko dute jarduera garatzeko. Elikagaiak manipulatatu eta prestatzeko guneak jardueraren gainekotik behar bezala bereizita egon behar du.
- Biltegiratzeko gune, hozkailu, manipulatzeko gune, lanean aritzeko gune, eta abarren neurriak egin beharreko lan-zamaren arabera izango dira.
- Gutxienez honako hauez hornitua izan behar da janariak prestatzeko gunea: esku-garbitokiak/harraskak, eskuak erabili gabe zabal daitezkeenak, edateko ur hotz eta beroaz, xaboi likidozko dosifikatzaile eta eskuzapiez hornituak.



Mutrikuko Udala

- Lanerako (elikagaiak manipulatzeko) azalerak, erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak, zura berariaz baztertzen delarik.
- Hozkailuak, kanpotik irakur daitekeen termometroak, eta janari gordinak, prestatuak eta edariak berezita gordetzeko edukiera nahikoa dutenak.
- Janariak prestatzeko gunea eta ibilgailua gidatzekoa guztiz berezita egon behar dira.
- Zoruak erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko materialekin eginak izan behar dute.
- Ahal den neurrian, material birziklatua izatea lehenetsiko da. Mahai oihalak eta zapiak paper birziklatukoak izatea, esaterako.

Baldintza orokorrak

- Elikagai guztiak enpresa baimenduetatik etorri beharko dira, eta behar bezala identifikatuta egon behar dute, jatorria egiaztatzen duten etiketa, faktura edo albaranen bitartez.
- Ibilgailuak estaliak izango dira, eguraldi txarretik babestuak, eta kaleko jendea elikagaiak biltegitatzeko eta manipulatzeko guneetara sartzea galarazteko sistemez hornituak. Ibilgailuak zikinkeria, kutsadura edo osasun gaiztasun eragileetatik urrun egon beharko dute.
- Ontziratatu gabeko elikagaiak manipulatu dituzten langileek elikagaien manipulazioaren arloko prestakuntza jaso dutela egiaztatu beharko dute. Langileek arropa garbia jantzi beharko dute, horretarako eta ez beste ezertarako erabiltzekoa.
- Hondakin-urak husteko sistema elikagaiak eta inguru garbiak kutsatzeko arriskua galarazteko modukoa izan beharko da, sare nagusira loturiko hodi malguaren zein ura biltzeko gordailu baten bitartez.
- Hala eskatzen duten produktu guztiak hozteko erakusleiho edo beira-arasatan egon beharko dute, tenperatura egokian.
- Jendaurrean jarritako produktu guztiak babestuta egon behar kutsaduraren, intsektuen eta bezeroen manipulazioa zuzenaren aurrean. Hotzean gordetzea behar ez duten produktuak ontziratuta aurkeztuko dira, edo erakusleiho edo pantailen atzean babestuta.



Mutrikuko Udala

- Laneko azalera, tresna eta ekipoak erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko materialez eginak izango dira. Debeku da zurezko azalerak zein tresnak erabiltzea.
- Argiztapen-sistemak behar bezala babestu behar dira, hautsiz gero janariak ez daitezen kutsatu.
- Produktuek eta horien kaxa eta ontziek ezin izango dute inoiz lurzorua zuzenean ukitu; elikagaiak kutsatzeko arriskua galarazteko moduko gutxieneko distantzia batean egon beharko dute.
- Behar den orotan, eta egunero lanaldia amaitu ostean, garbitu egin beharko dira barrutia eta erabilitako tresnak, janariak garbiketa-lanetatik behar bezala babestuta. Halaber, egunero desinfektatu beharko dira elikagaiekin harremanetan dauden makina eta tresna guztiak.
- Halaber, egunero desinfektatu behar dira elikagaiekin kontaktuan dauden makina eta tresna guztiak.
- Janariekin erabiliko diren tresnak garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak asmo horretarako propioak izan behar dute, eta elikagaietatik aparte gorde beharko dira.
- Lanaldietatik kanpo, establezimenduak kanpotik isolatuta egongo dira, halako moduan non kanpoko eragileek (intsektu, karraskari edo bestelako animalien) sarrera galaraziko den.
- Gaikako bilketa bermatu ahal izateko, 120 Lko edukiontzia eskainiko zaizkie establezimenduei, besteak beste, honako 4 motak: organikoa, papera eta kartoia, ontzi arinak eta errefusa. Egunaren amaieran, zerbitzu horiek 1.000 Lko edukiontzietara hustu beharko dituzte beren edukiontzi propioak eta inola ere ezingo dituzte erabili hondartzaren sarrerako 180 Lko edukiontzia, azken horiek hondartzako erabiltzaileentzat soilik baitira.
- Salgaiak egiteko prozesuan erabilitako substantzien artetik **alergia edo intolerantziak eragiten dituzten guztiak** adierazi behar dira, ikusteko moduko kartel batean argi adierazita.
- Jarduerari ekin aurretik, elikagaien segurtasun eta higieneko eta kontsumoko baldintzen ikuskarpena egingo da.
- Kontsumitzailearen babesari dagokionez, kanpotik ondo ikusteko moduan adieraziko dira jendaurrean saltzeko prezioak ele bitan, bai eta nahi duen bezero orok erreklamazio-orriak dituela erabilgarri.



Mutrikuko Udala

17. SEGURTASUN-BALDINTZAK ETA INSTALAZIOAK

Janari-furgonetek su-itzalgailu bat eduki beharko dute, gutxienez 21A-113B eraginkortasuna duena, erabiltzeko moduan eta leku ikusgarrian.

Salmenta-baimenaren esleipenduna izango da baimendutako jardueraren ondorioz sor litezkeen kalte-galera guztien arduraduna.

Esleipendunek udaltzainen aginduak eta Udaleko arduradunenak bete beharko dituzte une oro.

Udalak edo ordezkatzeko duen erakundeak edozein unetan egiaztatu ahal izango du oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen direla, ikuskaritza bidez.

18. KONTROLA ETA EGIAZTAPENA

Mutrikuko Udalak beharrezkoak diren kontrol-ekintzak egingo ditu, lizentzia behar duten ibilgailuak eta horietan burutzen den jarduera behar bezala egiten dela bermatzeko, Kaleko Salmentari buruzko Udal Ordenantzaren eta horien bidez egin beharreko jarduerari aplikatu dakiokeen gainerako lege-arauetan aurreikusitako xedeetarako.

Produktuak, ibilgailuak eta jarduerak ikuskatu ahal izango ditu Udalak horretarako, eta behar diren argibideak eta agiriak eskatu saltzaileei.

19. BAIMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hauek izango dira salmenta-baimena iraungitzeko arrazoiak:

- Indarraldia bukatzen denean.
- Titularrak uko egitea, edo hiltzea.
- Baimena ematekotan bete beharreko baldintzetakoren bat betetzeari uztea.
- Eskatzen diren tasa edo kanonak ordaintzen ez badira.
- Kaleko salmenta arautzeko udal ordenantzaren 7. artikularen ildotik baliogabetzea.
- Baimena galtzea dakarren zigorra ezartzen bada

20. HUTSEGITEAK ETA ZIGOR ERREGIMENA

Kaleko Salmenta arautzeko Udal Ordenantzaren III. kapituluko 32. artikuluan adierazten dena izango da arau-hausteen sailkapena. Udal agintariak, beren zaintza eta kontrol zereginen bitartez, ebazpen honetan jasotako xedapenak, kaleko salmenta arautzeko ordenantzaren finkatutakoak eta jarduerari nahiz saltzen diren produktuei aplikagarri zaizkien gainerako lege-arauak betetzen direla bermatuko dute.



Mutrikuko Udala

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio, dela ofizioz, dela eskumena duen organoak edo interesdunen batek hala eskatzen duelarik. Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokitzen jotzen duen erabakia hartzeko. Probidentzia baten bitartez abiaraziko da dossier zigortzailea; jakinaren gainean jarriko dira ustezko arau-hausleak eta, aldi berean, arrazoiak eta inguruabarrak azalduko zaizkie, baita ustez zein arau hautsi duten eta dosierra bideratzeko idazkari eta instruktore nor izendatu diren ere, eta hamabost egun naturaleko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa aplikatzeaz gain, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira arau-haustea. Araudi hori betetzen ez bada, ofizioz, organo eskudunak edo pertsona interesdunak eskatuta, nahitaezko zehapen-espedientea izapidetuko da.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena espedienteari hasiera emateko eta, hala badagokio, egoki iritzitako ebazpena emateko.

Zehapen-espedientea probidentzia bidez hasiko da, eta ustez arau-hausleak diren pertsonen jakinaraziko zaie. Probidentzia hori eragin duten arrazoiak eta inguruabarrak, ustez urratu den araudia eta instrukzioa egiteko izendatutako idazkaria eta instrukzio-egilea zehaztuko dira, eta hamabost egun naturaleko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako legeria orokorrean aurreikusitakoa aplikatzearen kalterik gabe, arau-haustea Mutrikuko udalerrian kalez kaleko salmenta arautzen duen Udal Ordenantzaren 32. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

21. KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULA

Beren datuak Mutrikuko Udalaren Ekonomia Sustapena Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sailaren jarduerak kudeatzeko helburua duen eta "Enpleguaren kudeaketa" deitzen den fitxategian sartuko dituela jakinarazi beharko die eskatzaileei Mutrikuko Udalak.

Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Deialdia ebatzi ondoren, Mutrikuko Udalaren iragarki-taulan nahiz web-orrian



Mutrikuko Udala

argitaratu ahal izango dira emaitzak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Mutrikuko Udalaren argibide bulegoetakoren batera.

22. BAIMENAK GOZATU EZINEKO EGOERAK

Lanengatik edo beste edozein arrazoiengatik baimenaren titularrak hartaz gozatzerik izango ez balu, Udalak egoera jakin hori aztertuko luke, une jakin horretan, baina egoera horrek ez dio baimenaren titularrari kalte-ordainik batere jasotzeko eskubiderik emango.



Mutrikuko Udala

I. ERANSKINA: EGUTEGIA.

Urtarrila						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
2	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Apirila						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Uztaila						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Urria						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Otsaila						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

Maiatza						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Abuztua						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Azaroa						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Martxoa						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Ekaina						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Iraila						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Abendua						
Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



Mutrikuko Udala

I. ERANSKINA: PLANOA.

